



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.IA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Vitoria-Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2023ko UZTAILAREN 11n**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **11 DE JULIO DE 2023**, con el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

## SEGURTASUN SAILA

## DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Dekretu-proiektua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili beharreko hauteskunde-materialaren eta -dokumentazioaren eredu ofizialak eta ezaugarri teknikoak zein horiek entregatzeko prozedura zehaztekoa.

2

Proyecto de Decreto por el que se determinan los modelos oficiales y las características técnicas del material y la documentación electoral a emplear en las elecciones al Parlamento Vasco, así como el procedimiento de entrega de los mismos.

Erabaki-proposamena, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren luzapena baimentzekoa, analisi forentseko unibertsitate-masterreko kanpoko praktika akademikoak eta master amaierako lanak egiteko, eta farmazia-fakultateko analisi forentseko doktorego-programan laguntzeko.

3

Propuesta de Acuerdo por la que se autoriza la prórroga del convenio de colaboración suscrito con la UPV-EHU para la realización de prácticas académicas externas y trabajos de fin de máster de titulación de máster universitario en análisis forense, y la colaboración en el programa de doctorado en análisis forense de la facultad de farmacia.

Erabaki-proposamena, UPV-EHUrekin (Zientzia eta Teknologia Fakultatea) sinatutako lankidetzahitzarmenaren luzapena baimentzekoa, ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko.

4

Propuesta de Acuerdo por la que se autoriza la prórroga del convenio de colaboración suscrito con la UPV-EHU (Facultad de Ciencia y Tecnología) para la realización de prácticas académicas externas del alumnado.



## LAN ETA ENPLEGU SAILA

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Erabaki-proposamena, Kooperera Servicios Ambientales S Coop sozietatea berme erreala eratu beharretik salbuestekoa, Ekintza biribila proiekturako dirulaguntza izenduna jasotzeko.

5 Propuesta de Acuerdo de exoneración a Kooperera servicios ambientales, S. Coop., de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada para el proyecto "Ekintza biribila".

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Legegintzako Dekretu-proiektua, Mondragon Unibertsitatearen Aitormenaren Legearen testuategina onartzekoa.

6 Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de reconocimiento de la universidad "Mondragon Unibertsitatea".

Legegintzako Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Egoitzaren Legearen testuategina onartzekoa.

7 Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sede de las Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Legegintzako Dekretu-proiektua, Euskadiren Ereserki Ofizialari buruzko Legearen testuategina onartzekoa.

8 Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre el Himno Oficial de Euskadi.

Legegintzako Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoen Legearen testuategina onartzekoa.

9 Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Legegintzako Dekretu-proiektua, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen araubide juridikoari buruzko Legearen testuategina onartzekoa.

10 Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre "Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública".

Legegintzako Dekretu-proiektua, Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen testuategina onartzekoa.

11 Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de la Escuela Pública Vasca.

Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailtako eta erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuen zerrendak onartzen dituzten dekretuak aldatzeko.

12 Proyecto de Decreto de modificación de los Decretos por los que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo del personal funcionario y laboral de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

Erabaki-proposamena, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzekoa.

13 Propuesta de Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Ordenes y Resoluciones.



- |   |    |  |
|---|----|--|
| <p>Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinarean gainean egon dadin.</p>  | 14 | <p>Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.</p>   |
| <p>EKONOMIAREN GARAPEN,<br/>JASANGARRITASUN ETA<br/>INGURUMEN SAILA</p>   |    | <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO<br/>ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y<br/>MEDIO AMBIENTE</p>   |
| <p>Dekretu-proiektua, Pasaia Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kendu eta beste bat izendatzekoa.</p>   | 15 | <p>Proyecto de Decreto de cese y designación de un vocal en el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasaia.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, Basque Culinary Center Fundazioarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin sinatu beharreko asmo-hitzarmena sinatua dela aintzat hartzekoa, bikaintasun-zentro bat sortzekoa.</p>   | 16 | <p>Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la suscripción del Acuerdo de intenciones con Basque Culinary Center Fundazioa y la Diputación Foral de Álava para la creación de un centro de excelencia.</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, ugalketarako landare-arloko nekazaritza-ustiategietan eta garbiketa-zentroetan biosegurtasuna hobetzeko proiektua gauzatzeko funtsak Arabako eta Gipuzkoako Aldundiei banatzeko baimena ematekoa, Europar Batasunak finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan - Next Generation EU.</p> | 17 | <p>Propuesta de Acuerdo por la que se autoriza la distribución a las Diputaciones de Araba y Gipuzkoa de los fondos para la ejecución del proyecto de mejora de la bioseguridad en explotaciones agrícolas de materia vegetal de reproducción y centros de limpieza, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - financiado por la Unión Europea - Next Generation. EU.</p> |
| <p>HEZKUNTZA SAILA</p>  |    | <p>DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN</p>   |
| <p>Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, ondorengo agindua finantzatzeko: Agindua, itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzetarako deia egiten duena, enplegua mantentzeko eta irakasle-plantillak gaztetzeko.</p>  | 18 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000 euros, en concepto de Orden por la que se convocan subvenciones a los centros educativos privados concertados para el mantenimiento del empleo y rejuvenecimiento de plantillas docentes.</p>  |
| <p>LURRALDE PLANGINTZA,<br/>ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA</p>   |    | <p>DEPARTAMENTO DE<br/>PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,<br/>VIVIENDA Y TRANSPORTES</p>   |
| <p>Dekretu-proiektua, Bizkaiko Garraio Partzuergoko Kontseilu Nagusiko eta Batzorde Betearazleko lehendakaria kargutik kendu eta beste bat izendatzekoa.</p>  | 19 | <p>Proyecto de Decreto por el que se dispone el cese del Presidente del Consejo General y de la Comisión Ejecutiva del Consorcio de Transportes de Bizkaia y el nombramiento de la Presidenta del Consejo General y de la Comisión Ejecutiva del Consorcio de Transportes de Bizkaia.</p>  |



- |   |    |   |
|---|----|---|
| <p>Erabaki-proposamena, Ortzibia SL sozietateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2022ko ekitaldian izandako galerak konpentsatzen laguntzeko.</p>   | 20 | <p>Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la sociedad Ortzibia S.L. destinada a colaborar a compensar sus pérdidas correspondientes al ejercicio 2022.</p>   |
| <p>Erabaki-proposamena, Lezoko (Gipuzkoa) 01 sektorearen hego-ekialdeko muturrean dagoen mendi-hegaleko lurretan izandako desplazamendua geldiarazteko ezinbestekoak diren larrialdi-lanak egiteko larrialdi-espediente aintzat hartzekoa.</p>  | 21 | <p>Propuesta de Acuerdo sobre conocimiento del expediente de emergencia para la ejecución de los trabajos de emergencia imprescindibles para frenar el desplazamiento producido en los terrenos de la ladera situada en el extremo sureste del sector 01 de Lezo (Gipuzkoa).</p>  |
| <p>BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA</p>   |    | <p>DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua dakarren kontratua baimentzekoa, EAEko eraikin eta lokal judizialak eta adingabeen zentroetako instalazioen mantentze-lan integralko zerbitzua emateko (esp.: C02/008/2023).</p>  | 22 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros para la prestación del servicio de mantenimiento integral de instalaciones de los edificios y locales judiciales y centro de menores de la CAPV (exp: C02/008/2023)</p>   |
| <p>Erabaki-proposamena, Talka Records SLri zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Bidasoa 2018-2023 dokumentala egiteko.</p>   | 23 | <p>Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a "Talka Records, S.L." para la realización del documental "Bidasoa 2018-2023".</p>  |
| <p>Erabaki-proposamena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abokatuen elkargoei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, herritarrek gatazkak konpontzeko bitarteko egokiak aukeratu eta erabiltzea zabaldu eta bultzatzeko proiektu pilotu bat egiteko.</p>   | 24 | <p>Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a los ilustres colegios de la abogacía de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, para la realización de un proyecto piloto para divulgar y potenciar la elección y empleo por la ciudadanía de los diversos medios adecuados de solución de controversias existentes.</p>  |
| <p>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA</p>   |    | <p>DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA</p>   |
| <p>Erabaki-proposamena, Arabako Ikusentzunezkoa SLU erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2023. urterako Tximist proiektua gauzatzeko: euskarazko edukiak sare sozialetara (youtube, instagram, tiktok) eta plataformetara (spotify) hurbiltzea, 18-25 urte bitarteko gazteen artean euskaraz kontsumitzeko ohitura sustatzeko.</p> | 25 | <p>Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad Arabako Ikusentzunezkoa, S.L.U. para la realización del proyecto "Tximist" para el año 2023: acercar los contenidos en euskera a las redes sociales (youtube, instagram, tiktok) y plataformas (spotify) para fomentar el hábito de consumo en euskera entre jóvenes de 18 a 25 años.</p> |



Erabaki-proposamena, AZK Taldea SA erakundeari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "E// Ihes-Gela/Escape Room" egitasmoa antolatzeko 2023. urterako (gazteen artean euskarazko barra-barra ekimena zabaltzea).

26

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad "AZK Taldea, S.A." para la organización del proyecto "E// Ihes-Gela/Escape Room" para el año 2023 (difusión de la iniciativa en euskera entre jóvenes).

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Erabaki-proposamena, 2022ko Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana eta 2022ko Turismo Enogastronomikoko Plan Nazionala egikaritzeko ardura duten toki-erakundeei zuzeneko 12 dirulaguntza ematekoa, eta, era berean, erakunde onuradunekin sinatu beharreko hitzarmen eredua onartzekoa, Euskadiren Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokion instrumentalizazioa egiteko, Europar Batasunak finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan - Next Generation EU -.

27

Propuesta de Acuerdo de concesión de 12 subvenciones directas a las entidades locales encargadas de la ejecución del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino 2022 y Plan Nacional de Turismo Enogastronómico 2022, y así mismo, se aprueba el convenio tipo a suscribir con las entidades beneficiarias para su instrumentalización correspondiente al Plan Territorial de Sostenibilidad Turística en Destino de Euskadi, enmarcado en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - financiado por la Unión Europea - Next Generation EU.

IZENDAPENAK ETA KARGU-  
KENTZEAK  
LEGEBILTZAR-EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 7a.

En Vitoria-Gasteiz, 7 de julio de 2023.

**SIN./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**  
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA**  
**JAURLARITZAREN IDAZKARIA**  
**CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA**  
**DEL GOBIERNO**